



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

25 urte
agoz

Zenb./Nº 5
Urtea/Año 2012
Otsaila/Febrero

URTE ASKOTARAKO!

Geure txistulari helduek estreinatu ziren, eta arrakasta osoz, joan den urtarilaren 22an Algortako kaleetan. Giroa ezin hobea izan zen. Ordu eta erdiz ibili ziren kaleak animatzen, txaloak eta agur beroak jaso zituzten eta, oso garrantzitsua hau ere, Jasone Pérezek hain ondo gidatzen dituen Bilbao Musikako txistulariekin dugun adiskidetasuna sendotu egin zen. Bisita itzuli behar diegu. Otsailaren 11n, eguerdian, Bilboko Alde Zaharreko kaleetan ere giro ona sortzen saiatuko gara.

Ba al zenekien?

2011-12 ikasturtean, 950 ikasletik gora ditugu. Ia 100 dira 5 eta 6 urteko ikasleak, ia-ia 575 daude 2. Mailan matrikulatuta, eta 3. eta 4. Mailako ikasleak eta Jazzean aritzen direnak osatzen dute gainerakoa.

Gogoratu:

Otsailaren 20tik 24ra. Aste Zuria dela eta, ez da eskolarik izango. Astelehen eta asteartean (20an eta 21ean), Musika Eskola itxita izango da. 22, 23 eta 24an, geure jendearen arretarako ordutegia, 9:00etatik 13:30ak artekoa izango da.

25 urte
agoz

IV NEGUKO BIDAIA

Dakizuenez, joan den urtarilaren 21ean hasi genuen IV Neguko Bidaia Zikloa. Arrakasta handia izan zen. Interpretatzaileei dagokionez, bermatua zegoen; bai klarineteak bai eta biolontxoak eta pianoak ere, duten soinu-aberastasuna erakutsi ziguten, bai banaka bai eta hirukote modura ere. Aukeratutako errepertorioa ere guztion gustokoa izan zen. Arrakasta ere etorritako entzuleei dagokionez, 250 lagun inguru bildu ginen, txikiak eta adinekoak, musikariei beroa emanez, geure arreta isilarekin, geure txaloekin eta geure kezkekin lagunduz; hauetako batzuk, ondoko solasaldian argitu zizkiguten.

Bete-beteen sartu gara otsailean. Larunbatero izango dugu hitzordua Neguko Bidaiarekin. Zikloarekin jarraitzeko, Susana Cerro eta Eider Torrijos sopranoak eta geure lagun mina eta musikari aparta den Mario Lereña piano-jotzailearen Kantu eta Piano emanaldia izango dugu. Hurrengo larunbatean, luxuzko jazz-programazioa dugu, Javi Alzola Power Band-arekin, 18an Luis Orden eta M^a Esther Guzmán flauta eta gitarrarekin eskainiko ditugun lagunarteko musika-emanaldiarekin jarraitzeko. Berria eta benetan erakargarria da zikloa itxeko aukeratu dugun kontzertua, "Les Galoubets de la Chambre" eta bere antzinako musikarekin.

Benetako luxua da musika horrela, zuzenean, entzun ahal izatea geure Musika Eskolan. Har ezazue zuen gonbidapena. Ezin dugu aukera hau galdu!


BERRIAK LIBURUTEGITIK

Elkarlanean Eusko Ikaskuntzarekin

"Andrés Isasi" Musika Eskolak, Anton Larrauri musikagilearen zenbait lanen zati digitalizatuak utzi dizkio Eusko Ikaskuntzaren Musika Sailari, *Musiker*. Cuadernos de Música aldizkariaren 18. alean argitara eman ditzaten.

Azkenean, Musika Sailaren arduradunak Antón Larrauriren "Deus lbi est" lanaren zatia (Musika Eskolan dugun ondare-artxibategiak utzita) hautatu zuen azalaren diseinuaren konposaketarako.

Informazio gehiago Scherzo aldizkariaren 270. alean, Liburutegian ikusgai.



Hileko egutegia

Otsaila

a	a	a	o	o		i
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29				

Jai-egunak

Eskolaren jarduerak

Jarduerak jai-egunetan

AGENDA

Otsaila

Otsailak 4: 25. urteurrena. IV Neguko Bidaia, 2. kontzertua. Kantu eta piano emanaldia: Susana Cerro, Eider Torrijos, Mario Lereña. 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera 4 €.

Otsailak 6: Teresa Aizpuren biolontxo-ikasleen emanaldia. 19:30ean

Otsailak 9: Natalia Cordero eta Pía Rojasen piano-ikasleen emanaldia. 18:15ean.

Otsailak 11: Txistu-ikasle helduen bandaren kalejira Bilbao Musikako txistulariekin batera Bilboko Alde Zaharrean. 12:00etan.

Otsailak 11: 25. urteurrena. IV Neguko Bidaia, 3. kontzertua. Javi Alzola Power Band. 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera 4 €.

Otsailak 13: Izaskun Lekue, Marisa Ibarra eta Marisa Sanz irakasleen piano-ikasleen emanaldia. 19:15ean eta 20:00etan.

Otsailak 14: Nohemi Ladrón de Guevara, Pabli Azurmendi eta Aitor Astigarragaren biolin- eta biola-ikasleen emanaldia. 19:45ean.

Otsailak 16: Haize-metalezko tresnen kontzertu didaktikoa. 11:00etan udaleko ikastetxeentzat, eta 17:30ean Musika Eskolako ikasleentzat eta gainerakoentzat.

Otsailak 18: 25. urteurrena. IV Neguko Bidaia, 4. kontzertua. Luis Orden eta M^a Esther Guzmán, flauta eta gitarra. 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera 4 €.

Otsailak 25: 25. urteurrena. IV Neguko Bidaia, 5. kontzertua. Les Galoubets de la Chambre. 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera 4 €.